



MAIZPIDE

## Euskaltegiko ikasleentzako diru-laguntzak

EUSKO JAURLARITZAK 2015erako Hizkuntza Politikarako aurrekontuak aurkeztu ditu. 2014arekin alderatuta %2,3 igoko ditu. Gorakadarririk handiena euskaltegiek nabaritutako dute, %25, hain zuzen. Euskaltegien finantzaketara 100.000 euro gehiago bideratuko dituzte eta ikasleei zuzenean laguntzeko 200.000 euroko laguntza izango da. Euskara ikasleek, gainditutako maila bakoitzeko diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute. Ondokoak dira kopuruak: HABEren 1. maila (edo baliokidea): 400 euro; 2. maila: 300 euro; 3. maila: 100 euro; 4. maila 100 euro.

## Arabako Foru Aldundiak “beherapenak” proposatu ditu

PPK GOBERNATZEN DUEN Arabako Foru Aldundiak 2015erako aurrekontuak aurkeztu ditu eta euskarari %24ko murrizketak proposatu ditu, alegia, 227.500 euro gutxiago. Zifra zehatzak ondokoak dira:

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak aurtengoaren erdia jasoko lukete, bakoitzak 50.000 euro.

Araba Euskarari %40 murriztuko lioke diru-laguntza, hau da, 10.000 euro gutxiago izango lituzke.

Arabako Bertsolari Elkarteak 15.000 euro jasoko lituzke, 2014an baino 10.000 euro gutxiago.

Euskararen erabilera eta sentsibilizaziorako programak diru-laguntzaren %57 galduko luke.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak %20 galduko luke.

Euskarazko argitalpenek %33 galduko luke.



DANI BLANCO

## Xaloa Telebistak Iruñerrian emititu nahi du

XALOA TELEBISTAK 50.000 euro behar ditu haien programazioa Iruñerrian zabaltzeko. Baztan, Bertizarana eta Malerrekan emititzeko sortu zen 1997an. 2013an ordea, Nafarroako Gobernuak Lurreko Telebista Digitaleko kanalen esleipena egin zuenean lizentzia lortu zuen Iruñerrian emititzeko. Telebistako kideek pozez hartu zuten albiste, baina jakitun ziren Iruñerrian hedatzeko inbertsio sendoa behar zutela. Urtea amaitu baino lehen emititzen hasi nahi dute eta Karena crowdfunding plataforma bidez ari dira laguntza jasotzen.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Babes sozialerako berezko sistema baten alde

Egongo da sinetsiko ez duenik, baina Hego Euskal Herrian ere badago pobrezia, desberdintasuna eta bazterkeria. Ez herri honetan dauden immigranteen artean soilik, baita bertan jaioetakoen artean ere. Egunotan argitaratu den Pobrezia eta Desberdintasunen 2014ko inkestak dio pobrezia EAEko biztanleen %5,9ri eragiten diola. 127.000 pertsona baino gehiago bizi dira “oinarrizko beharrak asetzeko nahikoa estaldurarik gabe”. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak ez ditugu eskura, baina antzekoak dira. Hego Euskal Herrian 217.841 lagun daude langabezian (%16,39) eta horietatik 120.000 inguruk ez du inolako prestaziorik jasotzen. Espainiako Gobernuak badu plan bat familiako kideak bere kargu dituen epe luzeko langabetuarentzat: prestazio guztiak ahitu eta urtebetera, sei hilabetez 400 euroko diru-laguntza ematen dio. Aldiz, familiako kideak euren kargu ez dituzten langabetuek ez dute laguntza hori jasotzeko eskubiderik. Horrela, pobrezia-ren kontrako borrokarik ez dago.

Nafarroako eta EAEko gobernuek ezin dute bestaldera begiratu; babes sozialerako berezko sistema sortu behar dute. Eta egin dezakete, enplegua mantendu eta pobrezia eta bazterkeria soziala ezabatuko lukeen beste ekonomia politika batekiko osagarria baita hori. Euren esku dago, esaterako, aberastasuna birbanatzea, gehien dutenei zergak igotzeko politika fiskala ezarriz. Euren esku dago enpresa eta sozietateek dituzten pribilegioak ezabatzea, iruzur eta paradisu fiskalak jazartzeko, iruzurgileen izenak publikatuz. Futbol zelaietako eta saskibaloi taldeentzako dirua baldin badago, geltokirik ez duten trenbideen obrentzako dirua baldin badago, are diru gehiago behar luke egon gure herriko biztanle guztiak duintasunez bizitzeko balioko lukeen berezko gizarte sistema sortzeko; pobreziatik, desberdintasunetik eta bazterkeria sozialetik urrunduko gaituen sistema bat.

Juan Mari Arregi

